

Aitita-amamak hizketan eskolako umeentzat

Zuztarretatik *ahora* proiektuak Nerbioi-Ibaizabaleko (Bizkaia) euskararen eta ahozko kulturaren tradiziozko transmisioa sustatzea du helburu. Labayru Ikastegiak prestatu du material didaktikoa, 0-12 urteko haurrentzat.

KRISTINA ENCINAR

AHOZKOTASUNA Haur eta Lehen Hezkuntzarekin oso loturik dagoen arren, askotan ikasgelan ahozko baliabideak lantzen dira kontuan hartu gabe ahozkotasanak tradizioz izan duen funtzioa, hau da, ondare jakin baten transmisioa ziurtatzea. Horrela, haurrek abestiak CD aseptiko batean entzun, testuingururik gabeko esaldi anonimoak errepikatu eta inoiz ikusi gabeko lekuetako irudiak kasuan kasuko kontzeptuekin identifikatu ohi dituzte. Aldiz, tokian tokiko euskara eta ahozko herri-jakituria ikasgelako ahozkotasuna jorratzearekin batera bilduz, haurrak hurbilago lortuko ditu bere burua kokatzeko erreferentziak, eta abiaburu horri helduta, erosoago iritsiko da ikasgelan eskatzen zaion hizkuntz baliabideen identifikatze nahiz erabileraren bide zuzenenera.

Helburu hori gauzatu eta eskuraturiko emaitzak gizarteratzeko asmoarekin, J. M. Barandiaranen galdetegia eskuan hartuta, ama-hizkuntza bertako hizkera duten 77 berriemaile adineko elkarrizketatu ondoren, Labayruko Herri Ondarea lantaldeak Nerbioi-Ibaizabaleko zortzi udalek sustatutako proiektuan (Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Orozko eta Ugao) irakasle zein gurasoentzako material didaktiko eta pedagogikoz bete-beterik den *Zuztarretatik ahora* DVDa sortu du. Ondare etnografikoa (bizimodua, urtesasoi-tako ohiturak, eta abar),

INIGO AZKONA



Zuztarretatik ahora proiektuan parte hartu dutenetako batzuk ezkerretik eskuinera: Fredi Paia, Janire Enzunza, Miren Ibarluzea eta Eneko Zuloaga.

ondare lexikala (esaera zaharrak, berbak, adibidez) eta ondare etnolinguistikoa (ipuinak eta bertsoak) batu dira. Lantaldea bera ari da hainbat aurkezpen egiten herri bakoitzeko ikastetxeetan materiala ezagutarazteko, eta eskualdeko udalak dohanik ari dira eskolei banatzen.

DVDak 0-3 (gurasoei zuzendua gehienbat), 3-6, 6-8, 8-10 eta 10-12 urte bitarteko atalen bidezko egitura du, eta material berri hori guztia irakaslearen programazioan arazorik gabe txertatu ahal izateko, Labayruko egileek hertsiki egokitu dute

Haur eta Lehen Hezkuntzako Curriculumera. Sortutako atal bakoitzaren barnean adin-taldeen eskakizun berezien arabera gaiak, ariketak, abestiak, bideoak, entzutezko ulermenerako fitxategiak, fitxa didaktikoak, esakuneak, irudiak, eskulanak, denbora-pasak, hiztegiak eta antzeko hamaika baliabide aurkituko dira, den-denak inprimatzeko bertsioan ere badakartza diskoak. Ahozkotasunaren didaktikan aditua den P. Bronckart irakasleak proposatutako ereduaren aplikazioa egin nahi izan da lan honetan.

Galdakaoko zaldien soinuak ikasgelan

Ahozko erreferentziak gertuokak diren moduan, gainerako erreferentziak ere gertuokak dira. Adibidez, historiaren aro nagusiak ikasten direnean, Erdi Aroko Basauriko aztarnei buruzko entzungaiak, ikusgaiak eta ikasgaiak ekartzen dira. Izan ere, nola ikasiko du hobeto sekula herritik atera ez den haur batek garraioa zer den atzeriko autobus gorri baten argazkia arbelean erakutsita? Kanean ezin izango du halakorik aurkitu. Lantaldearen ustez, eragin-korragoa izango da, alde batetik, etxetik hurbil pasatzen den autobusa erakustea, eta bestetik, 65 urtetik gorako eskualdeko aitita-amama bati lehen autobusik ez zela eta oinez joaten zirela edonora kontatzen entzutea. Input horri esker, haurrak output naturalagoa sortzeko aukerak biderkatzen ditu, egunerokotasunaren edozein unetan eskolan ikusitakoa ikasgelatik kanpo bizi dezakeela konturatuko delarik. Adibide gehiago ematearren, zergatik erakutsi Gasteizko kale eta dendetako argazkiak Etxebarriko haurren auzokoenak ekarri ordez? Edota zertan banatu Galdakaoko ikasleei animalia baten irudi fotokopiatua herrian bizi den eta eskolara bidean egunero ikusten duten zaldiaren egiazko soinuak eta bideo-grabazioak ikasgelara ekar badaitezke?

Haurrak errealitatean hizkuntzaren jabeakuntzari aurre egin behar dionean, hots, erabili behar duen hizkuntzaren berri izatean, etengabe jasotzen duen input mota adina hiztun mota aurkitu ohi ditu. Euskararen egoera soziolinguistikoa gogoan hartuz gero, haurrak erdal hiztun eredu asko entzuten ditu (estilo, jatorri, lanbide, heziketa eta abarren arabera), eta horrela



Pantxi Astobiza orozkoarra, elkarrizketatuetako bat.

gaztelania ulertzeko ahalmen naturalagoa eta erreala bereganatzen du. Euskara ikasgelan ikasi behar duenean, ostera, haur horri euskal hiztun mota gutxi aurkezten zaizkio, eta litekeena da gerora haur horrek hizkuntza erreal eta hurbil baten erreferentzia galtzea. Hutsune hori betetzera ere badator material didaktikoa, lantaldearen esanetan, haur guztiek izan dezaten euren ondoan, birtualki bada ere, euskaraz egiten dien aitona edo amona.

Labayruko lantaldean didaktika jorratu duen Miren Ibarluzeak diokun bezala, "ahozkotasuna ahoz lantzen da", eta baieztapen hori bereziki egia da, zer esanik ez, hizkuntzak ikasgelan ikasten direnean. Izan ere, haurrekin usadioa dago idatzizko material gehiegi erabiltzeko, eta horrekin batera, aitzakia hau edo beste dela medio tokian tokiko ahozko material eza justifikatzeko. Bada, *Zuztarretatik abora* DVDa alderdi horiek konpontzera iritsi da, irakasleei hizkuntzaren irakaskuntza beste ikuspegi batetik erakusteko helburuarekin, hizkuntza-helburu bakoi-tza hiztun errealean ahotan testuinguraturuz, euskara ez dadin esaldi solte bat izan, baizik eta bideo-pasarte osoak non herriko hiztun batek haurrak uki eta dasta ditzakeen istorio errealek kontatzen dituen.

Otsailerako Uribe-Kostakoa

Zuztarretatik abora lanaren benetako sorburua otsailerako prest izango den Uribe-Kosta eskualdeko *Zer ikusi, ba ikasi!* DVDan datza. Bi diskoen egitura, edukia, helburua eta metodologia berdin-berdinak dira, bigarren kasuan Uribe-Kostako eskualdearen testuingurua lantzen delarik. Era berean, bi diskoak gauzatu dira eskualdeetako udalen egitasmoaren ondotik. Espero da bi esperientzian eskutik eskualde gehiagok antzeko proiektuak sustatzea.

Bildutako ondarea modu askotara gizarteratu daiteke. Labayruk argitaratu duen Fredi Paiaren *Maruri-Jatabe Bizimodua eta ohiturak* liburuan, adibidez, sakonago eta testu zientifiko baten gisan aurkezten da aurrez egindako bilketa etnografiko eta linguistikoa. *Zuztarretatik abora* ko unitate didaktikoak, ostera, hezkuntzara lotutako gizarteratze modua dira. Dena den, jasotako datuei bizitza luzea aurreikusten zaie. Izan ere, *Zuztarretatik abora* laneko ia 340 orduko grabazioen %10 baino ez da DVDan eman ahal izan, eta beraz, aukera emango du etorkizunean beste hainbat euskarri eta material sortzeko: herri-toponimia irakatsi, ibilbide etnografikoak zein linguistikoak prestatu, bertako euskararen hiztegia atondu, grabazioen transkripzioa egin eta abar.

Bertako hizkeraren berreskuratzeari laguntzeko baliagarria da, hau da, gurasoek haurrekin herriko euskaraz eta gramatika estilo zuzenarekin mintzatzeko hainbat esaldi, haur-hiztegi eta olgeta-kontuak dakartza, eta hori itxaropen tsua da kontuan hartuz gero eskualdean jende askok oso barneratuta daukala Nerbioi bailarako euskara galdurik dagoela, non ez zekiten existitzen zenik ere. Baina ez da hala, eta *Zuztarretatik abora* da horren erakusgarria. ■

Babeslea: **HABE**

HABE

Helduen Alfabetatze
Berreuskalduntze Erakundea

105 euskaltegi
1.500 irakasle
39.000 ikasle

munduro

euskaraz

www.habe.euskadi.net
www.euskara.euskadi.net